

# Herri Aldizkaria Otamotz



Ihauteriak otsaileko ekintza nagusia izango zirela uste bagenuen ere, bat-bateko elurtea izan da benetakoa albistea. Hala ere zenbaitzuk ez zuten humore ona galdu eta mozorroturik elur artera irten ziren

□ Otsailaren 28an, **Goierriko emakume elkarteak topaketa** ospatu zen Urretxuko Kultur Etxean. **Mairi** emakume elkarteak antolatutako ekintza honetan, Legazpi, Beasain eta Ordiziako taldeetako emakumeak ere bildu ziren. Taldeen izaera, ekintzak eta, asmoak azaltzea zen topaketaren helburua.

□ Eusko Jaurlaritzako justizia, ekonomia, lana eta gizarte segurantzaren sailen arduradunak, Ramon Jauregik, Zumarragako San Kristobal auzoan, **adingabeak berrezitzeko** egoitza bat zabaltzeko asmoa azaldu dio Zumarragako alkateari. Ez da kontu berria, iaz ere, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak egoitza hau Zumarragan kokatzeko nahia azaldu baitzuten, baina Jaurlaritzak egitasmoa oraingo legegintzaldian martxan jartzeko interesa du. Proiektua gauzatuko balitz, Euskal Autonomi Elkartearen zabalduko den modu honetako lehenengo zentroa izango litzateke Zumarragakoa.

□ Zumarragako Eroski paretik hasi eta La Salle ikastetxeko zubira bitarteko trenbide zatia ekainerako estaliko da. Tolosatik Altsasura bitarteko trenbidearen konponketa lanek data horretarako bukatuta izan behar dutenez, estalketa lana ere, ordurako amaitzeko asmoa azaldu dute egitasmoaren egileek. Hala ere, sei hilabeteko epea dago lanak burutzeko. Guztira 6.000 metro karratu estaliko dira, eta aurrekontua 249 milioi pezetakoa da.

□ Urretxu eta Zumarragako txiskolari kopurua handituz doa. Orain arte hemengo hiru talde izan dira ETBko **TXISKOLA** programan eta hauetako talde batek gainera, Mallorkarako bidaia irabazi zuen. Otsailean herritarren marka ondu nahian, laugarren talde bat izan da ETBn eta jakin izan dugunez makina bat barre egin arazi zuten. **Martxoaren 4an**, gaueko 10etan ETBko lehen katean, izango dira ikusgai gure herritarrek egin eta esandako txiskolakeriak.

QUEMALIZATEAN

ZINTZU  
ZINTZU

ELMARTEA

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

**HEGIALDE AUTO**

ZERBITZU OFIZIALA

- KONPONKETAK OROKORREAN
- IBILGAILU SALMENTA
- GARBIKETA ZUBIA

PEUGEOT

Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU

**Keros**

enmarkatze arte ederrak dekorazioa opariak

Labeaga, 35 Tfnoa: 71 41 60 20700 - URRETXU

**Lanbica**

- estetika
- dietetika

Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA



**ADINA EZ DA OZTOPOA IKASTEN HASTEKO****Urretxuko EPA orain 13 urte jarri zen martxan**

EPA, ezagutzen ez dutenentzat, helduentzako hezkuntza dela argitu behar da.

Egun, Gipuzkoan hamahiru egoitza ari dira lanean eta Urretxukoa, Bergara eta Donostiakoekin batera, esperientzia honen aitzindari dugu, Legazpikoa Urretxukoaren babesean dago.

1983.urtean sortu zen eta lokal desberdinetatik igaro ondoren gaur egun, Jauregi kalean du kokalekua.

EPA, OHOrekin parekatu dezakegu, baina barne antolamenduari begira baditu bere desberdintasunak.

Lehenik eta behin azterketa baten bidez, ikasleak duen maila akademikoa definitzen da eta honen arabera maila batean edo bestean hasiko ditu bere ikasketak.

Ikasketa prozesuaren lehen mailan, alfabetizazio eta neoirakurketa arloak lantzen dira eta honetan eskolara inoiz joan ez diren ikasleak sartuko genituzke; bigarren maila amaitzean eskola aurre agiria lortuko dute ikasleek eta hirugarren zikloan eskola agiria. Esan beharra dago azken agiri honen bila datozela ikasle gehienak. Lanbide heziketa munduan sartzeko asmoa dutenak graduatuondoko agiria lortzen saiatzen dira. Urrutirago doazen



ikasleak ere badira eta gaur egun lauzpabost ikasle ari dira unibertsitate ikasketak burutzen.

Adin guztietako jendea gerturatu arren, helduak dira ardura eta jarraikortasun handien azaltzen dutenak eta emakumeak, ikasle kopuru hndien osatzen dutenak. Emakumeek ikasketa hauetan parte hartuz, kulturaz aberasteko aukera aparta eta egunero-kotasunetik ihes eginez, independentzia handiagoa izateko parada dute.

Irakasle guztiak OHOk irakasleak dira eta EPAn espezializatuak, badira


helduentzako klaseak emateko ikastaroak egin dituztenak ere.

Alida Molinerok, Urretxuko EPAko zuzendariak, azaldu digunez, egun klaseak erdaraz ematen dira, aurtien, badago, euskara asignatura gisa aukeratzeko posibilitatea eta ikasleek hala eskatuko balute eta irakasleak prestatuta baleude, ez litzateke klaseak euskaraz emateko eragozpenik izango.

Beraz badakizue, inoiz ez da berandu bakoitzaren kultura aberasteko, eta hemen daukazue aukera paregabea, animo bada !!.

**POLITENA**  
**TABERNA**

Kalebarren 20700 ZUMARRAGA



**RENEDO argazkiak**

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700  
URRETXU

© 72 56 82  
72 22 92



**SEGUROS LAGUN ARO**  
**ASEGURUAK**

**Euskadiko Kutxa Taldekoa**

Piedad,1 - behea  
20700 ZUMARRAGA

Tel. 72 50 22  
Fax. 72 52 81



## BADIRA GU BAINO LEHENAGO ARITUTAKOAK



Esku artean duzun OTAMOTZ herri aldizkaria argitaratzen hasi aurretik, izanda Urretxu eta Zumarragan izen berdineko musika talde bat eta baita beste aldizkari bat ere. Aldizkari hau izendatzerakoan, bi herrien adierazgarri izango zen izenik aproposena topatzen ahalegindu ginen eta horretarako toponimiara jo genuen. Ezkio, Urretxu eta Zumarragarrok inguruko herritarrengandik, urteetan OTAMOTZAK ez izenez ezagutuak izan garenaz, aldizkariari OTAMOTZ izena jartzea erabaki genuen. Hau hala izanik eta orduan gure aurretik aritutako bi taldeen berri ez bagenuen ere, ezin esan daiteke erabateko kasualitatea denik, urte desberdinetan sortu diren hiru taldek izen berbera aukeratu izana. Guztiok toponimian oinarritu baikara taldea edota taldearen lana izendatzeko.

## OTAMOTZAK aldizkaria

Aipamen berezia egin nahi diogu duela 16 urte 5 zumarragarrek plazaratu zuten OTAMOTZAK aldizkariari. Izan ere, 1980. urtean, Angel Cruz Jaka, Luran Busca Isusi, Jose Tapia, Juan Jose Garmendia eta Miguel Bilbao zumarragarrek, OTAMOTZAK argitalpenaren 0 alea eta ale bakarria plazaratu zuten. Alean irakur daitekeenez, egileen helburua argitalpenarekin jarraitu eta Zumarraga eta inguruko herrietako historiaren berri eman, herriko eta udaleko informazioa zabaldu eta hutsune kulturala betetzea zen. Hala ere, jakin izan dugunez, 0 alea bakarrik plazaratu zen. Ale honetan, Santa Lutzi Periarri buruzko informazioa eta bertsoak, Zumarragako baserrien berri,

Zumarragako idi probei buruzko artikulua eta komikiren bat irakur daiteke.

## OTAMOTZA otxotea

Aipagarria da aldi berean, musika alorrean ere izan dela OTAMOTZA izena erabili duen talderik. 1978. urtean, 10 lagunek, Xabier Alzelai, Xabier Azkarate, Joxe Larrañaga, Felix Peciña, Txomin Probanza eta Garmendia anaiek, Juan Ignacio, Jesus Mari, Jose Luis eta Javierrek OTAMOTZA otxotea sortu zuten. Juan Ignacio Garmendia zen zuzendaria eta gainontzekoek bere aginduetara abesten zuten. Euskal abestiak kantatzen zituzten eta denbora luzean jardun ez bazuten ere, herrian emanaldiren bat edo beste eskaini zuten.

# MAZMELA

erloju, bitxi eta  
zilardenda

Gernika plaza, 1 © 72 18 57

20700 URRETXU

Agotzame Dekoazioa

LABEAGA 52-720494-URRETXU

# MASTER - Hezkor

Zumarragako elektrogailu  
erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera  
benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31  
20700 ZUMARRAGA




# ILLARGI, E.A. okindegia

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU

LIBURUDENDA



# GANBARA

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45  
20700 URRETXU



## Ba al duzu sagardotegira joateko ohiturarik?



Arantxa Salegi eta Maria Jesus Bermejo

Noizbait joan izan gara. Baina aspaldian ez gara joan, horretarako dirurik ez dugulako. Hala ere, joan beharko bagenu gustura joango ginatke eta berdin litzaiguke Goierrri aldeko sagardotegiren batera edota Astigarraga aldera joatea.



Pello Egiburu

Ez dut sagardotegietara joateko ohitura handirik, urtean behin edo bitan joaten naiz. Aurten ere badut joateko asmorik. Astigarragako edozein sagardotegira abiatuko gara.



Paulo Salegi

Orain ez naiz joaten, baina garai batean urtero sagardo garaia iritsi orduko Txotx-era joaten ginen. Sagardotegira gosaltzera joaten ginen, bakailao tortila sagardo pixka batekin gosaldue ondoren, inguruko tabernaren batean bazkaldu eta gauean etxeratzen ginen.



Josean Larrarte

Urtean behin edo bitan joaten naiz, ia urtero. Aurten behin joanda nago eta berriro ere izango naiz. Inguruko sagardotegietara joateko ohitura dut, Astigarraga urruti samar geratzen baita sagardotegian egon ondoren kotxea hartzeko.



Urretxuko Irigon baserrikoa da, 17 urte ditu eta Legazpiko REM-en dabil ikasten, goizez joaten da eskolara eta arratsaldeak judora, igeri egitera edota gimnasiara joateko aprobeztatzen ditu. Baina dudarik gabe gehien gustatzen zaion asteko eguna larunbata da, jai eguna izateaz gain, arratsaldetan Atzegik Urretxuko Labeaga kalean duen Txolarte elkartera joaten delako lagunekin eta bolondres gisa lan izugarria egiten duten monitoreekin arratsaldea pasatzera.

Zinema mundua ezagutzeko parada izan zuen duela lau urte, orduan euskal filmotekako lehen saria irabazi zuen filmean aktore lanetan aritu zen. Orain, Atzegi eta ETB elkarlanean Donostian produzitzen ari diren *La caja de croissants* laburmetraiako protagonista da, eta grabatzera joateko irrikitan egoten da. Gorka, Antton da filmean eta aktore ugarirekin dihardu lanean. Kontxu Odriozola, Goenkaleko Maria Luisa, bere ama da laburmetraian.

Aktore lana ikaragarri gustatzen zaion errealzale amorratu honek, interpretaziorako duen gaitasunak, aho zabalik eta harriturik utzi ditu bere gainontzeko lankideak.

Urretxuarrak egindako laburmetraia, aurki, Zumarragako La Salle aretoan izango da ikusgai eta orduan izango dugu Gorka interpretazioan ikusteko aukera.

**GORKA ZUFIAURRE**

**EDURNE**

*Punta puntako moda*  
*Aukerarik hoberena*  
*gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA

**ELIZ - KALE**

**L AUTOESKOLA**

Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

**BIONA**

**AROSZTEGIA**

© eta Faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g 20700 URRETXU



## Sasieta, ingurugiroaz arduratzen den mankomunitatea

Azken egunetako egunkarietan eta beste zenbait komunikabideetan ikusitakoa ikusirik, egun zaborrek makina bat lan, buruhauste eta hizpide sortzen dutela esan dezakegu. Guk geuk ere zaborrez eta Deskarga barrenean dagoen hondakinak berreskuratzeko Deskarga biltegiak besteak beste, mintzatu gara Sasieta Mankomunitateko Iñaki Erauskinekin.

*Hasteko, Urretxuko hondakinak berreskuratzeko biltegiaren berri izan nahi genuke.*

Bai, jasotako datuen bidez Zumarraga inguruan bilketatik kanpo geratzen ziren hondakin asko eta asko ez zela Beasaingo zabortegira ekartzen eta edozein bazterretan botatzen zela konturatu ginen. Igeltseroak, kontrastak... ez ziren hona etortzen beraientzat zabortegia urrutiegi edo dagoelako. Hau guztia ekiditeko asmoarekin zabaldu da biltegia. Esan, biltegia ez dela zabortegia, material organikoak ez dira jasotzen, zabor-bilketa zerbitzuak jasotzen ez dituen hondakinak jasotzen ditu. Sailkatu eta bertan dituen kontainerrak bete bezain pronto, hondakin bakoitza dagokion lekura, birziklatzera edo birziklatzeko gai ez bada ingurugiroari kalterik ez egiteko moduan beti, eramango da. Biltegi hau Legazpi, Zumarraga eta Urretxuko udal herrien zerbitzura dago, bertako eraikuntza sektorearentzat, industria txikiarentzat eta merkatarientzat batez ere, eta zerbitzu hau beti doan ematen da.

*Sasieta mankomunitateaz zer esango zeniguke?*

Begira, ni 1991n hasi nintzen Sasieta lanean. Eta Sasieta mankomunitatea 1990eko otsailean osatu zen, gurea da mankomunitaterik gazteena, baita dinamikoena ere. Maila oso ona lortu dugu, Gipuzkoako onenak eta Euskal Herriko onenak gara ere esan daiteke. Kezka izan dugu, proiektuan sinestu dugu eta laguntza handia, baita politikariena ere, izan dugu. Badago

horrelako kohesio bat, batera lan egiteko gogoia eta gauzak ondo doazenean badakizu...


*Eta Estatuko eta Europako beste herrialdeekin konparatuz, zer nolako maila daukagu?*

Gipuzkoa estatuko egoerarekin konparatzen badugu, oso maila ona duela esan dezakegu. Espainian, %30a kontrolik gabe botatzen da. Gipuzkoan azpiegitura ona daukagu eta horretaz aparte birziklapen programak berreskuraketak... Europarekin alderatuz, Alemaniak, Suediak... maila hobea dutela esan behar da. Hemen Frantziak, Italiak dituzten tasak ditugu.

*Holandan, zaborrak astean behin biltzen omen dituzte. Hori zergatik da? Guk baino zabor gutxiago sortzen al dute?*

Ez, ez da kopuru kontua, kultura kontua bai ordea. Badakizu, gu erdi-latinoak gara, kontenedoreak gertuan behar ditugu, poltsa txikiak erabiltzen ditugu... Guk eguneko 850 gramo zabor sortzen badugu, Holandar batek eguneko 1.200 gramo sortzen du, paristar batek berriz eguneko 2100, eta EEBBetako biztanle batek eguneko 3 kilo sortzen du. Zenbat eta maila altuagoa izan, orduan eta zabor gehiago sortzen da. Zaborren osaketa ere desberdina da. Hemen organikoa %38a eta papera eta kartoia %27a bada, EEBBetan papera eta kartoia %45a da eta organikoa %18a.

*Zumarragan ere jardunaldiak ere izan dira.*



1982an zabor bilketa arloan zegoen egoera txarra hobetzeko asmoz, Foru Aldundiak plan zuzentzaile bat bideratu zuen. Orduan jarritako helburuak bete direnez, hurrengo 20 urtetarako plan integralaren inguruan eztabaidatu dugu Zumarragan. Planteatu diren ekintzak zaborra gutxitzea, zaborra berrerabilteza eta birziklatze izan dira. Baina sobratzen zaigunarekin zer egin? Hori da eztabaida. Intzineratu behar bada, leku bat beharko da horretarako, beste zerbait egin behar bada beste bi edo hiru zabortegi berri beharko dira.

*Biotxu saria ere jaso duzue.*

Bai, Eusko Jaurlaritzak, Udal eta Mankomunitate espezialitatean ingurugiroaren babes eta zaintza lanetan gehien nabarmendu den entitateari ematen dion saria guri eman digu.

*Bukatzeko, zer eskatuko zenieke herritarrei?*


Ingurugiroa babestea, zaintzea, denon erantzukizuna da. Herritarrak ez du pentsatu behar entitate abstraktu batek dena konpondu duela, berak ere ekintzak positiboak egin behar ditu. Bere esku dauden baliabide horiek, beste leku batzuetan ez daudenak, aprobetxatu behar ditu, berarentzat ere onuragarria izango baita.



**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA

© 72.04.23



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
20700 - ZUMARRAGA




**JAKIN**

Bulegoko eta merkataritzako  
makinen salmenta eta  
konponketa

Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU





Teknologia berriak ez du mugarik, bestela begira Eskandinaviako kotxe modelo berri hau. Elurtea aprobetxatuz, gure herrira ekarri dute komertzializatzen hasi aurretik egin beharreko lehenengo froga bertan burutzeko

NONDIK DATOR!

ARANGUREN

Bi osagaiez osaturiko abizena da. Aran ek bailara esan nahi du. Euskal Herrian erro berbera duten makina bat abizen aurkitu ditzakegu: Aranberri, Aranburu, Arangoitia, Aranzadi... Abizenaren bigarren osagaiak, guren ek muga adierazten du. Modu honetan bukatzen diren hainbat abizen topa ditzakegu: Alzaguren, Iburguren, Eguren, Mendiguren, Ojanguren...

Martxoaren 8a, emakumearen eguna.

Martxoaren 8a, emakume langilearen eguna izanik, bada gure egoeraz erreflexio bat egiteko ordua.

Egunez egun, emakumeok isilik jasan behar izaten dugun biolentziaz arituko gara.

Mendeetan zehar, patriarkalismoak, emakumeen aurkako etengabeko biolentzia erabiliz mantendu ahal izan du bere inperioa, emakumeen askatasun, nortasun eta norbait izateko gaitasuna bortxatuz, emakumeak bere menpe mantendu ahal izateko. Egoera hau ez da eman kasualitate edo sexuen arteko balizko ezberdintasun fisiko edo psikikoek eraginda; baizik eta patriarkadoak inposatutako primantza maskulinoa mantentzeko metodoaren eraginez, bizitzaren esparru guztietan, "bere propietate pribatua" zaintzearen lemapean. Emakumeok askotan propietate horien zaku berdinean sartu izan gaituztelarik.

Umetatik tradizioaren izenean jaso izan dugun heziketa, etorkizuneko gure menpekotasuneko papera betetzera eta onartzera bideratzea izan da. Balore maskulinoz blaitutako mundu batean bizitzeko bere bigarren mailako kondizioa onartu behar duela ikasten du.

XX. mende honetan, lana topatzeko ere, jasan behar dugun eraso ez da bakarrik lan munduan sartzeko ipintzen dizkiguten eragozpenak. Lana aurkitu ondoren ere, gizarteak inposatutako rolen araberakoa kokatzen da: administrazioan, erizaintzan, garbitzaileak... lehendabiziko lanpostuak ditugu. Sistemak saldu nahi izan digun berdintasun eta hautaketa askea egiteko aukerak, islada faltsuak besterik ez dira.

Lan munduan ere, bada beste errealitate gordin bat, eraso eta akoso sexualena, eraso sexistak jasan behar baitugu gurekin lanean ari diren "kideen" aldetik.

Hala ere, bortxaketa izan da gure aurka erabili den biolentzia modurik aintzinakoena, harreman sexualik nahi ez duen emakume bat behartzea, gure biolentzia bortitz eta gogorrena bilakatu da, ez bakarrik gure askatasun sexuala zapuztearren, baizik eta bortxaketak dakartzan ondorio guztiengatik.

Guzti honengatik, baina aurrerapausoak eman direla ahaztu gabe ospa dezagun gure egun hau ahalik eta itzaropentsuen, baina gure eguneroko zereginetan eta gure askatasuna lortzeko eginkizunetan gelditu gabe.

URRETXU ZUMARRAGAKO EMAKUME TALDE BAT

Argazki Estudioa F/S Argazki eta bideogintza Ipeñarrieta, 20 72 23 19 URRETXU Aizkorri, 1 73 06 84 LEGAZPI

Mutua General de Seguros Iparragirre, 11-etxeazpia 20700 URRETXU 72 25 99

ITURGINTZA LUIS ANGEL Gure erakusketan zain gauzkazu! Deskargarako bidea, z/g. eta Faxes: 72 54 59



AYUSO: "EPAILEAREN LANA MARRAZAINARENA BAINO  
ERRAZAGOA DA"

Juan Luis Ayuso, 40 urteko urretxuarra, futbol epaile bezala dabil aspalditik. Gaztetan futboleko jokatzeko eta pixkanaka epaile lana egiten hasi zen, dena den soldaduzka amaitzean ekin zion lanari seriotasunez. "2. A" mailara heldu bazen ere, egun "2. B" mailan dabil marrazain bezala. Hala ere, berak nahiago du gaztetxoaren arteko partiduetan epaitzea.



—Zu epailea izanik, nola ikusten duzu epailearen irudia?

Jendea beti gainean dugu eta partidu amaieran ere mehatxuak jasotzen ditugu. Hala ere, zelaitik kanpo pertsona arrunt gisa ikusten gaituzte eta gure lanari esker lagun asko egiten ditugu.

—Dena den, zu orain marrazain lanetan zabiltza bakarrik.

Bai, hain zuzen ere "2. B" mailan. Haatik nahiago dut epaile lana marrazainarena baino. Epaileak partidua nahi bezala gidatzen du, marrazainak, aldiz, jokoz kanpoko jokaldiak zaindu behar ditu kontu handiz. Honetarako bi begi baino gehiago behar dira.

—Epailearen lanak jasotzen al du merezitako ordaina?

Nire ustez bai. Estatu osoan zehar ibilia naiz, Balear eta Kanariar irlak barne. Honela tokian-tokiko ohiturak, paisaiak eta jendea ezagutzeko aukera izan dut. Lan honi esker lehen mailako futbol zelai gehienetan epaile lanak burutu ditut. Gainera, laguntza ekonomiko polita da.

—Ze iritzi duzu lehen mailako epaileez?

Jendeak gogor kritikatzeko dituzte, baina nire ustez sekula baino maila hobea dute. Epailearen bat azpimarratzeko Lopez Nieto azpimarratuko nuke, epaile zein pertsona gisa primerakoa da. Epaileak oso ondo prestatuak daude. Duela lau urte birmoldaketa bat burutu zen, hogeitabi epaile eta berrogeita lau marrazain soilik gelditu zirelarik lehen eta "2.A" mailan. Gazteei lehenetsia eman zitzaion eta nik ez nuen talde horretan sartzerik izan.

**Epailearen lana gutxietsia dago**

Epaile gazte hauen artean oso ondo prestatua dagoen eta lehen mailara igotzeko aukera handiak dituen andoaindar bat dago: Perez Lasa.

—Gipuzkoa mailan ze futbol zelaik du ospe txarrena?

Nire lankideak Arrasateko futbol jarraitzaileez kezka dira. Nik, ordea, inoiz ez dut arazorik izan zelai honetan.

—Argixaoko zelaia...

Nire ustez bertara hurbiltzen den talde batek ez du jarrera egokia

epailearekiko. Hamabost bat pertsonako taldea da.

—Bitxikeria eta esperientzia on berezirik bai?

Ugari. Bitxikerien artean, futbol zelai ezberdinetako belar zatien bilduma egiten nuela esan dezaket. Hemeretzi lorontzi izan nituen. Esperientzia onei dagokionez, Real Sociedad-Real Madrid, Real Sociedad-Minsk-eko Dinamo... anaikidetasun partiduetan epaitzeko ohorea izan dut.

—Esperientzia txarrak ere izango dituzu.

Baten bat bai. Mendizorrotzan behin harrikada bat jaso nuen buruan, orduan Alavesen jokatzeko zuten Ruiz zumarragarra izan zen laguntzera hurbildu zen lehena.

Bestalde, lehen aipaturiko Errealaren eta Dinamoren arteko partiduan Karpinek izandako portaera txarra aipatu nahi nuke. Ez dut esango gorroto diodanik baina jokalaria zikinen artean bera aipatuko nuke lehena.

**URRETXU**  
OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOAK

Iparagirre, 1    © 72 59 68    20700- URRETXU

**KALITATEA ● TEKNIKA ● ZERBITZUA ● MODA**

**ZAPATAK**

*dindori*

**Otik 40 zenbakiraino**

Eliz Kale, 7 © 72 54 39 20700 ZUMARRAGA



## ARGAZKI IKASTAROA

**Martxoaren 18tik aurrera:** Gema Arrugaetak emandako hasiera mailako **argazki erakusketa** Urretxuko Kultur Etxean. 30 ordukoa izango da eta matrikularen prezioa 4.000 pezetakoa materiala barne.

Izen ematea Kultur Etxean egin daiteke martxoaren 1etik aurrera.

## HAURRENTZAKO ZINEA

Igandeetan arratsaldeko 16:30etan eta Pagoeta antzokian **Zintzo-Mintzok** antolatutako haurrentzako filmeak. Sarrera, 100 pezeta.

Martxoak 3: **Sherlock Holmes**

Martxoak 10: **Asterix eta galiarrak**

Martxoak 17: **Spiderman**

Martxoak 24: **Asterix eta hamabi probak**

Martxoak 31: **Banpiro ehizaria**

## EUSKARA IKASTAROA

**Patxi Goenaga** euskaltzainaren eskutik, **Gure euskara hobetuz** izeneko euskara ikastaroa antolatu du **Zintzo Mintzok** martxoaren 7,14,21 eta 28rako. Izen ematea Zintzo Mintzo elkartearen, 725775 telefonoan.

## ERAKUSKETA

**Martxoaren 1etik 10era bitartean,** Pedro Mari Heras bildumatzailerearen **garagardo posabaso**en erakusketa Aldaketa erakusgelan.

## BERTSO AFARIA

**Martxoak 8:** Agiñako Oleta elkartearen **Gazteak Bertso**gintzan kanpainaren barnean **bertso afaria** iluntzeko 8:30etan. Bertso eskolako **Gorka Ojanguren** urretxuarra eta **Nerea Elustondo** legazpiarra, Lazkaoko **Xabier Narbarte** eta Azpeitiako **Jokin Uranga** arituko dira bertsoetan. Prezioa: 1.500 pt. Sarrerak Zintzo-Mintzo, Oleta eta Aldiri elkarteetan daude salgai.

## KONTZERTUA

**Martxoak 30:** Ederrena Pilotalekuan Axola, **King Mafrundi**, **Gozategi anaiak**, **Maixa**, **Itziar** eta **Garbiñe**, **Sorotan Bele**, **Exkixu** eta **Drindots** taldeen kontzertua.

## ZORIONAK



**Unai Areizaga**, urtebete bete du martxoaren 1ean. Zorionak izeba eta aitona-amonen partez.



**Ander Larrañaga**, 3 urte betetzen ditu martxoaren 26an. Zorionak aita, ama eta Julenen partez!



**Juani Zabaleta**, martxoaren 16an da bere urtebetetze eguna. Zorionik goxoena k lantaldekoen partetik.



**Jon Zaldia**, 23 urte betetzen ditu giputxi honek martxoaren 17an. Bilboko neska talde admiratzaile bat. **ZORIONAK POTXOLO!!!**



**Bea Ruiz**, 24 urte beteko ditu martxoaren 22an, zorionak koadrilaren partetik. Zer moduz Valentzian, Ondo e?



**Rosa Larrañaga**, martxoaren 22an betetzen ditu urteak. Zorionak etxeko guztion partetik. Urte askotarako!

# URRETXUKO



# ALDAPA